

PRAKTIKA ONEN ZERRENDA BATERAKO

Zalantzak

Zure zalantzek beste askorenak kentzeko balio lezakete.

Zalantzatan bazaude edo nola jokatu ez dakizula edo ezin ulertuan, jo LANARTEAra lasai. Inolako konpromisorik gabe lagunduko dizugu.

Arazoak

Zure arazoek beste askorenak konpontzeko balio lezakete.

Arazorik baldin badaukazu, jo LANARTEAra lasai. Gure laguntza nahikoa ez bada, bideratuko zaitugu adituengana.

Hitzaldi, mahai inguru, irakurle talde, eskola bisita...

Galdetu beti zenbat ordaintzeko asmoa duten. Galde ezazu esandako kopurua gordin edo garbia den. Alegia, zerga kenduta edo zerga erantsita (Pertsona Fisikoen Gainekoa), autonomia baldin bazara.

Grabaketak

Ohikoa izaten da zenbait erakundek hitzaldiak grabatzea.

Aldez aurretik galdetu behar da beti. Antolatzaileek ez dute ulertzen grabatua izateak dituen ondorioak hitzaldirako eta hizlariarentzako. Eta grabaketa hitzaldiari erran gabe atxikia doala uste dute antolatzaileek.

Irrati kolaborazioak

Irratian zure ahotsa grabatu da, baina gertatu ohi da zeurea ez den ahots batek errepikatzea zuk grabatu duzuna beste programaren batean (zeurea dela aitortu gabe ere bai). Komeni da akordioaren bat sinatzea bi parteek grabatutakoaren erabileraz.

Inoren lana aurkeztea

Argitaletxeak eskatua bada, galdetu beti zenbat ordaintzeko asmoa daukaten. Irakurketa profesional bat eskatzen dizute, eta haren ondorioak publiko egitea. Bi lan dira.

Hitzaurreak

Irakurketa profesional bat eskatzen dizute, eta zeure burua inplikatzeko obrari buruz idatziz. Ordainduak izan behar dute, inolaz ere, lan biok.

Kontratuak

Ez sinatu ezer argitaletxean. Paperak hartu eta etxera eraman, lasai irakurtzeko. LANARTEAn behar duzun aholkua emateko gaude.

Albaranak edo jakinarazpen hutsak

Ez sinatu horrelakorik inoiz, ondorio latzak etortzen ahal zaizkizu. Legezko ordainketa jaso duzula bai, PFG Zerga erantsia daukana. Soldataduna bazara, BEZa ere atxikia eduki behar du ordainketak (Balio Erantsiaren Zerga).